

Koiuntura di-da batean

2018ko uztaila

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Lan merkatua
3. Langabezia
4. Inflazioa
5. Konfiantza
6. Ekonomia sentimendua

Eranskina

1. EAEko BPGa berriro gorantz berrikusi da.

Moteltze arina aurreikusten da 2018ko bigarren hiruhi-
lekotik aurrera.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 baino gehiago hazten ari da.

Gehikuntza handiagoa da emakumeen artean.

3. Langabezia erregistratua %8,0tik gorako erritmoan jaisten ari da.

Langabeziaren bilakaeran egonkortasun handia haute-
maten da.

4. KPIaren aldakuntza tasa bikoiztu zen maiatzean.

Petrolioaren garestitzea da igoera horren arrazoirik be-
hinena.

5. EAEko familien konfiantza finkatu da.

Baina enpresarien konfiantza moteldu da.

6. Europako baikortasuna zertxobait apaldu da.

Hala eta guztiz ere, oraindik balio altuak jaso dira.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK


EAEko BPGa berriro gorantz berrikusi da

Barne produktu gordina Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko ekonomiak 2018ko lehen hiruhilekoan izan zuen bilakaera bikainak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin zituen aurreikuspenak gorantz berrikustek ekarri du berarekin. BPGaren oraingo hazkunde aurreikuspenak, urteko batez bestekoan, %2,8an kokatu dira 2018rako eta %2,3an, berriz, 2019rako. Hiruhilekoka aztertuta, 2018ko bigarren hiruhilekotik aurrera moteltzeko joera arina aurreikusten da. Hazkundearen bultzagile nagusia barne eskariaren bizitasuna izango da. Dinamismo hori familiek kontsumoan egingo duten gastuan eta kapital eraketa gordinean oinarrituko da. Bi agregatu horiek hobertantz egingo dute, ekonomia eragileek baikortasuna adierazi baitute etorkizuneko bilakaerari buruz.


Azken kontsumoa Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Hazkundera bultzatuko duten jardura adarrak industria eta zerbitzuak izango dira. Lehenengoaren moteltzea biziagoa izango dela aurreikusten da. Aitzitik, zerbitzuetan bilakaera egonkorragoa espero da. Eraikuntzak ere apaltzeko norabide leuna erakutsiko du kontuan hartu den epealdi horretan zehar.

Enpleguaren sorrera %1,9an kokatuko da 2018an eta %1,4an, berriz, 2019an. Tasa horiek esan nahi dute 17.800 eta 13.200 lanpostu garbi sortuko direla urte horietan, hurrenez hurren. Langabezia tasak behera egingo du datozen hiru hilabeteetan ere eta %10,0aren azpian egon daiteke 2019ko bigarren seihilekoan.

Enplegua
Urte arteko aldakuntza tasa




Langabezia tasa
Portzentajea



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,0 baino gehiago hazten ari da

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden pertsonen kopuruari dagokionez, ekainaren amaieran lan portaera onak jarraipena izan zuen EAEn. Hain zuzen ere, kotizatzen zutenen kopurua 953.783 lagunetan kokatu zen, pausuz pausu krisiaren aurrean zegoen kopurura hurbilduz. Hori horrela izanda, bigarren hiruhilekoan jaso zen urte arteko aldakuntza tasa %2,1 izan zen. Orobat, sei hileko osoaren batez besteko tasa hamarren bat altuagoa izan zen. Enpleguaren berreskuratzea nabarmenagoa da emakumeen artean (%2,4 sei hilekoan) gizonen artean (%2,0) baino. Horri esker, generoen arteko banaketa gero eta homogeenagoa da. Ekainean, Gizarte Segurantzaren 508.000 gizon eta 446.000 emakume zeuden afiliatuta.

Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Enpleguaren hobekuntza EAEko ekonomiaren ekoizpen arlo guztietan hauteman zen, baina aipamen berezia merezi du eraikuntzak, ekainean %3,8ko urte arteko gehikuntza jaso zuelako, krisia hasi zenetik tasa gorena baita. Jarduera adarrei dagokienez, hezkuntza (%3,6) eta osasuna (%3,7) nabarmendu ziren, baina baita arlo pribatuko beste batzuk ere, hala nola informazioa eta komunikazioak (%4,9), higiezin jarduerak (%3,7) eta garraioa (%3,3). Beste muturrean, finantza jardueren afiliazioak oraindik behera egiten du (%-0,9), baina urrun dago aurreko epealdietan jaso zituen tasa negatiboetatik.

Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden lagunak


	2017ko ekaina	2018ko ekaina	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	933.445	953.783	20.338
Industria manufakturagileak	173.727	176.971	3.244
Merkataritza	138.634	139.317	683
Osasun arloko jarduerak	91.467	94.825	3.358
Hezkuntza	66.860	69.263	2.403
Administrazio jarduerak	65.365	67.333	1.968
Ostalaritza	64.085	65.113	1.028
Lanbide jarduerak	53.964	55.484	1.520
Eraikuntza	53.620	55.632	2.012
Administrazio publikoa	46.643	47.713	1.070
Garraioa	39.990	41.315	1.325
Etxeko langileak	31.250	31.004	-246
Bestelako zerbitzuak	27.610	27.520	-90
Informazioa eta komunikazioa	21.436	22.486	1.050
Finantza jarduerak	18.318	18.147	-171
Jarduera artistikoak	14.940	15.382	442
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.481	13.883	402
Ur horniketa	5.795	5.968	173
Higiezin jarduerak	3.878	4.022	144
Energia horniketa	1.767	1.759	-8
Erauzketa industriak	567	583	16
Lurraldez kanpoko erakundeak	48	61	13

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzari Ministerioa.

LANGABEZIA LANBIDEREN BULEGOETAN

Langabezia erregistratua %8,0tik gorako erritmoan jaisten ari da

Langabezia erregistratua guztira
Urte arteko aldakuntza tasa






Enplegu bulegoek eskaini duten informazioak adierazten du langabeziaren jaitsiera erritmoa %8,0tik gorako urte arteko tasetan jarraitzen duela. Izan ere, 2018ko ekainean lanik gabeko 120.000 pertsona baino zertxobait gehiago zenbatu ziren, aurreko urteko hileko beraren aldean %8,2ko jaitsiera batekin. Horren ondorioz, aurtengo lehen sei hilekoaren batez bestekoa %-8,3 da. Tasa hori ez da asko desbideratzen 2016an (%-8,8) eta 2017an (%-8,6) eskuratu ziren zenbakietatik. Beraz, langabezia jaisteko erritmoan egonkortasun handia dago. Langabeziaren jaitsiera azkarragoa da gizonen taldean (%-11,3 ekainean) emakumeen taldean (%-5,8) baino, neurri handi batean emakumeak lan merkatuan duten partaidetza handitzen jarraitzen ari direlako.

Langabezia erregistratua. Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gazteak
 Urte arteko aldakuntza tasak

Langabezia erregistratua. Atzerritarrak
 Urte arteko aldakuntza tasak


Ekaineko langabezia jaitsiera 25 urtetik gorako biztanlerian gauzatu zen (%-8,8), gazteen artean %1,5eko urte arteko igoera txikia hauteman zen bitartean. Beste aldetik, ez da desberdintasun esanguratsurik nabaritzen nazionalitatearen eremuan eta langabeziaren beherakada antzekoa izan zen atzerritarren (%8,0) eta nazionalen (%8,3) artean.

Gaur eguneko langabeziaren beste ezaugarri bat da gehiago jaitsi dela lan eskarmentua duten pertsonen artean, lehen enpleguaren bila aritzen diren lagunen artean egonkortasuna hauteman den bitartean. Azken horiek %1,3ko murrizketa txikia jaso zuten. Sektoreka, langabeziaren zuzenketa askoz nabarmenagoa da erakuntzan, ekainean %18,7 gutxitu baitzen bere langabeen kopurua, industrian %11,1 eta zerbitzuetan %7,5 baino.

Langabeak


	2017ko ekaina	2018ko ekaina	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	131.269	120.485	-10.784
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	21.400	19.687	-1.713
Bizkaia	75.351	69.437	-5.914
Gipuzkoa	34.518	31.361	-3.157
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	57.669	51.136	-6.533
Emakumeak	73.600	69.349	-4.251
25 urtetik beherakoak	7.003	7.109	106
25 urte baino gehiago dutenak	124.266	113.376	-10.890
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.941	2.672	-269
Industria	15.878	14.117	-1.761
Erakuntza	11.366	9.240	-2.126
Zerbitzuak	85.983	79.554	-6.429
Lehenago lan egin dutenak	116.168	105.583	-10.585
Lehenago lan egin ez dutenak	15.101	14.902	-199
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	20.955	19.284	-1.671

INFLAZIOA

KPIaren aldakuntza tasa bikoiztu zen maiatzean

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumoko prezioak puntu bat igo ziren maiatzean aurreko hilekoaren aldean, petrolio gordinaren garestitzeagatik. Horren ondorioz, KPIaren aldakuntza tasa %2,0an kokatu zen, azken urtebetean izan duen mailarik altuena baita. Beraz, hileko horretan inflazioak EBZren helburua bete zuen, baina petrolioaren merkatua normaldu ondoren prezioak berriro apalduko direla aurreikusten da.


KPIaren banaketa

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	2,0	2,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,5	0,2
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,8	0,8
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	5,7	1,0
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	3,4	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	7,5	0,8


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



KPI erregairik gabe

Urte arteko aldakuntza tasa



Aipatua izan denez, gorakada horren erantzule nagusia petrolioaren garestitzea izan da, upelaren prezioa 80 dolarretara hurbildu zelako. Horren ondorioz, erregaien taldea %8,8 garestitu zen, indize orokorrean puntu erdi bateko eragina utziz. Halere, ondasun horien eragina kentzen denean, lortzen den indizea oraindik maila neurritsuan dago, %1,5eko igoera batekin, nahiz eta bizkortzeko zantzuak erakutsi dituen. Erregaien garestitzeak bereziki garraioan du eragina, azken hamabi hilekoetan %4,8ko igoera izan baitu, aurreko hilekoko emaitza ia hiru puntu goraraziz. Erregaeiaz gain, argindarra ere prezioen gorakadaren erantzulea izan zen. Beraz, bigarren talde inflaziogileena etxebizitza izan zen (%2,5).

KPIaren talde nagusiak


Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,0	2,1	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,1	2,0	2,1
Edari alkoholduak eta tabakoa	2,4	2,1	4,2
Jantziak eta oinetakoak	1,4	1,0	0,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,5	2,3	2,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,6	0,1	0,3
Medikuntza	0,1	0,2	0,8
Garraioa	4,8	5,1	3,8
Komunikazioak	2,5	2,4	-0,6
Aisia eta kultura	0,8	0,8	1,6
Hezkuntza	1,0	0,7	-2,0
Jatetxeak eta hotelak	1,8	2,0	2,2
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,5	0,9	1,3

KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA

EAEko familien konfiantza finkatu da

Familiaren konfiantza indizea




EAEko familien konfiantza indizeak bosgarren balio positibo jarraitua jaso zuen 2018ko bigarren hiruhilekoan eta hobekuntza txikia izan zuen aurreko datuaren aldean. Lehen sei hilekoaren batez bestekoa 1,5ean kokatu da, 2013tik lortu den daturik gorena. Goranzko norabide hori ekonomia hazkundera eta lan merkatuan bizi den egonkortasunean oinarritu da. Izan ere, kontsumitzaileek ekonomia orokorraz eta enpleguaz duten ikuspegia positiboa da. Familiaren ekonomiaz duten igurikimenak nabarmen zurreragoak dira eta neutrotasuneko baliotan kokatu dira. Aitzitik, aurrezkiarekiko igurikimenean konfiantza balio negatibotan dago, nahiz eta aurreko hiruhilekoaren aldean hobierantz egin duen. Beste adierazle batzuei dagokienez, kontsumitzaileek inflazioa gora egingo duela aurreikusten dute eta erosketa unearren balorazioa ez da aldatu, oraindik negatibotzat jotzen baita.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2015	2016	2017	2017			2018	
				II	III	IV	I	II
Kontsumitzaileen konfiantza	-6	-5	1	5	0,4	1	1	2
Ekonomia orokorra	-4	-7	6	12	9	6	5	3
Familiaren ekonomia	-9	-5	-5	-3	-5	-4	-6	-3
Langabeziaren bilakaera	3	9	12	23	7	9	12	15
Aurrezteko ahalmena	-16	-12	-10	-12	-9	-8	-10	-7
Prezioen bilakaera	6	14	-17	-18	-6	-17	-24	-18
Erosteko momentua	-19	-8	-3	-3	-5	-2	-5	-11
Erosketen gauzatzea	-12	-10	-7	-8	-2	-7	-3	-6


Enpresarien konfiantza indizea



Laboral Kutxak enpresen konfiantzaz argitaratu duen indizea 56,6an kokatu da 2018ko hirugarren hiruhilekoan. Datu horrek beherakada esanguratsua dakar aurreko hiruhilekoko emaitzaren aldean. Indizea 50aren gainetik egoteak hedatzeko eremuan dagoela adierazten duen arren, EAEko enpresek ikuspegi ezkorragoa dute ekonomiaren bilakaeraz 2018ko uztailetik irailera bitarteko epean.

Igurikimena okertu den arren, egoera oraindik nahiko positiboa da eta ekoizteko ahalmena handitzeko eta, azken batean, landunen kopurua areagotzeko asmoari eusten diote.

Enpresarien igurikimenak. 2018ko III hiruhilekoa




Iturria: Laboral Kutxa.

EKONOMIA SENTIMENDUA EUROPAN


Europako baikortasuna zertxobait apaldu da

Ekonomia sentimendua Europar Batasunean





Europako Batzordeak osatzen duen ekonomia sentimenduaren indizeak beheranzko joera arina erakutsi du 2018ko hasieran. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko multzoak 115,0ko balio batekin amaitu zuen 2017. urtea eta 2018ko ekainean 112,2an kokatu zen. Eraikuntzak bakarrik lortu zuen 2017ko amaierako datua hobetzea. Are gehiago, aurtengo maiatzean inoizko baliorik gorena eskuratu zuen 4,8an kokatuta, ekaineko datua baino sei hamarren gorago. Gainontzeko osagaien artean, kontsumitzailearen konfiantzak behera egin zuen -1,3ra arte. Jaitsiera horren atzean Trumpek hasi duen arantzel gerra eta Europako hainbat herrialdetako tentsio politikoak egon daitezke. Moteltzeko joera hori eremuko herrialde nagusietara hedatu zen. Esate baterako, Alemaniak ekainean 111,9ko balioa jaso zuen eta Frantziak 109,6koa, biak abenduko emaitzaren azpian daudela, baina erreferentziatzat hartzen den 100aren gainetik.

Ekonomia sentimendua Alemanian





Ekonomia sentimendua Frantzian



Ekonomia sentimendua Erresuma Batuan

Erresuma Batuko indizea 106,9an kokatu zen, aipatu diren bi potentzien datuen azpian, baina oraindik zeinu positibo batekin. Txikizkako merkataritzak izan zuen bilakaera onena, 7,6ko emaitzarekin, azken sei hilekoko altuena baita. Kontsumitzailearen konfiantzak zertxobait hobetu zuen urte hasieran, baina ekainean -7,0ra jaitsi zen, 2017ko abenduan jaso zuena berdinduz. Badirudi Brexita kalte egiten hasi dela herrialdeko ekonomia sentimenduan.

Urte hasieran beherantz egin ondoren, Italia zertxobait suspertu zen ekainean (109,8 jaso zuen, maiatzeko 108,4aren aldean). Zerbitzuak (11,9) eta txikizkako merkataritza (7,2) izan zuten sentimendu baikorrena. Aitzitik, eraikuntzak (-12,7) eta kontsumitzailearen konfiantzak (-3,2) okerrera egin zuten. Hala eta guztiz ere, Europar Batasuneko bilakaeratik aldentuta, kontsumitzailearen konfiantzak zertxobait hobetu zuen ekainean. Hobe-kuntza hori gobernua osatutakoan ziurgabetasun politikoa desagertzeak ekarri du.

Ekonomia sentimendua Italian**Ekonomia sentimendua Espainian**

Espainia ez da gai izan 110 puntuetatik gora egonkortzeko. Zerbitzuak (23,6) eta txikizkako merkataritza (11,4) dira ekonomia horren indargune nagusiak. Bi horiei kontsumitzailearen konfiantza gehitu zitzaion ekainean, 1,8ko balio batekin, 2017ko uztailetik izan duen baliorik gorena baita. Halere, eraikuntzaren eta industriaren sentimendu negatiboak, azken hori lehen aldiz hamar hilekotan jaitsi baitzen, besteen hobekuntza konpentsatu zuen. Beraz, indizeak aurreko hilekoan jasotako 109,4ko maila berdindu zuen.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017				2018
			I	II	III	IV	
BPG	3,1	2,9	2,8	2,9	3,0	3,0	3,1
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,0	3,0	3,0	2,8	2,9
Administrazioaren kontsumoa	2,3	2,4	2,6	1,2	2,7	2,9	2,6
Kapital eraketa gordina	3,1	3,5	3,0	3,2	3,9	3,8	3,7
Barne eskaria	3,0	3,0	2,9	2,7	3,1	3,1	3,0
Esportazioak	1,7	3,0	1,5	1,9	3,7	4,8	6,5
Inportazioak	1,5	3,1	1,9	1,8	3,9	4,8	6,2
Lehen arloa	2,0	-3,0	4,2	-1,9	-1,9	-11,9	-5,6
Industria	2,9	2,7	2,0	2,3	2,7	3,7	3,7
Eraikuntza	1,8	2,5	2,1	1,9	3,0	3,1	2,7
Zerbitzuak	2,8	3,1	3,0	3,2	3,1	2,9	3,1
Balio erantsi gordina	2,7	2,9	2,7	2,9	3,0	3,0	3,1
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	3,0	3,3	2,4	3,0	3,2	3,1

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko maiatza

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018			2018	2019
	II	III	IV		
BPG	2,9	2,7	2,6	2,8	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,7	2,4	2,3	2,6	2,1
Familien kontsumoa	2,8	2,5	2,4	2,7	2,1
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,0	2,0	2,2	1,8
Kapital eraketa gordina	3,5	3,5	3,3	3,5	2,9
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,7	2,9	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-4,4	-8,7	-8,0	-6,7	-4,6
Industria	3,3	3,1	2,8	3,3	2,3
Eraikuntza	2,4	2,2	2,0	2,3	1,8
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,8	2,9	2,4
Balio erantsi gordina	2,9	2,7	2,7	2,8	2,3
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,6	2,4	2,3	2,6	2,0
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,9	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
BBVA	3,1	2,8	Laboral Kutxa	2,7	—
Funcas	3,1	—	CEPREDE	2,6	2,2
Confebask	2,9	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,4	—

Iturria: CEPREDE (2018ko ekaina), BBVA (2018ko apirila), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2017ko abendua), Funcas (2018ko maiatza) eta Hispalink (2018ko maiatza).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017				2018
			I	II	III	IV	I
BPG	3,3	3,1	3,0	3,1	3,1	3,1	3,0
Kontsumo pribatua	2,9	2,4	2,2	2,4	2,4	2,5	2,8
Kontsumo publikoa	0,8	1,6	1,0	1,5	1,4	2,4	1,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0	4,9	3,9	5,6	5,6	3,5
- Aktibo finko materialak	3,4	5,2	5,2	4,1	5,7	6,0	3,7
- Eraikuntzan	2,4	4,6	4,5	4,3	5,1	4,8	4,7
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	6,1	6,1	3,9	6,6	7,7	2,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	3,7	3,5	2,9	5,0	3,3	2,9
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	2,8	2,5	2,5	3,0	3,2	2,8
Esportazioak	4,8	5,0	5,6	4,5	5,6	4,4	3,2
Inportazioak	2,7	4,7	4,5	3,1	5,9	5,2	2,8

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,8	2,3	Intermoney	2,8	2,4
Axesor	2,8	2,4	Repsol	2,6	2,4
BBVA	2,9	2,5	Santander	2,9	2,4
Bankia	2,9	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,8	2,4
CaixaBank	2,8	2,4	BATEZ BESTE	2,8	2,4
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2018-04)	2,7	2,4
CEEM-URJC	2,7	2,3	Espainiako Bankua (2018-03)	2,7	2,3
CEPREDE-UAM	2,7	2,4	Europar Batzordea (2018-05)	2,9	2,4
CEOE	2,8	2,6	NDF (2018-04)	2,8	2,2
FUNCAS	2,8	2,4	ELGE (2018-05)	2,8	2,4
ICAE-UCM	2,8	2,7	The Economist (2018-06)	2,7	2,4
IEE	2,8	2,3	Consensus Forecast (2018-06)	2,8	2,3

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017				2018
			I	II	III	IV	I
AEB	1,5	2,3	2,0	2,2	2,3	2,6	2,8
Txina	6,7	6,9	6,9	6,9	6,8	6,8	6,8
Japonia	0,9	1,7	1,3	1,6	2,0	2,0	1,1
Kanada	1,4	3,0	2,3	3,8	3,1	3,0	2,3
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,3	2,5	2,8	2,7	2,4
Eurogunea	1,9	2,2	2,1	2,5	2,7	2,8	2,5
Alemania	1,9	2,2	2,1	2,3	2,7	2,9	2,3
Frantzia	1,2	1,8	1,4	2,3	2,7	2,8	2,2
Erresuma Batua	1,9	1,8	1,8	1,8	1,7	1,3	1,2
Italia	0,9	1,5	1,3	1,6	1,7	1,6	1,4
Herbehereak	2,2	3,2	2,6	3,3	2,9	3,0	3,1

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,9	2,6	2,5	2,2	3,9	3,5
Japonia	1,1	1,1	1,0	1,1	2,5	2,5
Kanada	2,0	1,9	2,3	2,0	5,8	5,8
Europar Batasuna	2,1	1,9	1,8	1,8	—	—
Eurogunea	2,2	1,8	1,6	1,6	8,3	7,8
Alemania	2,1	1,8	1,8	1,8	5,3	5,1
Frantzia	1,9	1,7	1,7	1,5	8,7	8,3
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,5	2,1	4,3	4,4
Italia	1,3	1,2	1,2	1,4	10,8	10,4
Espania	2,8	2,3	1,6	1,5	—	—
Herbehereak	2,8	2,3	1,5	2,1	—	—

Iturria: Consensus Forecast.